

Herri ezeztatuen baieztapena

Torino: Kataluniako eta Euskal Herriko zinema eta politika

Herri ukatu eta ezeztatuek beren nortasuna berreskuratzeko eta finkatzeko daramaten burrukan garrantzi berezia hartu dute gaurregun "entzun-ikusgailuek", eta, bereziki, zinemak eta telebistak. Ez da hau harritzekoa, irudiaren zibilizazioan bizi garaia esaten badugu. Entzun-ikusgailuen eragina ezaguna da edozein herriren bizitzaren alderdi guztietan eta, batez ere, kulturazkoan. Horregatik, bestelako instituziorik gabe edo oso murriztuta gelditu diren Herriek, gaurreguneko komunikabide sozial indartsuen diren horiei heldu nahi die, beren nortasunari eustekok

Bestalde, telebista-zinemak eta Herri ezeztatuen burruka politiko jenerala oso loturik doaz. Eta hau ere bidezkoa eta ulergarria da, komunikabide horiek indar eta eragin politikoa handia dutelako. Horregatik, Herri ukatuen arteko zinema-topaketak gehienetan oso politizatuak izaten dira. Hala izan dira ekainean St. Vincent-en (Vall d'Aostan) ospatu diren topaketak eta hala

izan nahi dute, datorren azaroan Torino-n ospatuko direnetan.

Izan ere, St. Vicent-en, Herri ezeztatuen zinema definitzekoan puntu hau hartu da kontutan: Nazionalitatearen edo Gutxiengo etnikoaren nortasuna baieztatzea eta horren alde burrukatzea jotzea.

Torinoko Astealdi

Datorren azaroaren 10tik 24era bitartean, Kataluniaren eta Euskal Herriaren zinemari eta arazo nazionalari buruzko astealdia ospatuko da.

Bi ardatz ditu, beraz, astealdiak: bata zinematografikoa; bestea politikoa. Baina biak oso loturik joango dira.

Alde batetik, astean zehar, lau elkarrizketa-etzabaida antolatuko dira: a) Nazionalitatearen arazoak ezkerreko alderdietan: zenbait espezialistaz gainera, Kataluniako eta Euskal Herriko ordezkariak hartuko dute parte etzabaida honetan; b) Zinema eta Nazionalitate ukatuak: M. Porter, katalanak zuzenduko

du elkarrizketa hau, eta zinegile euskaldun batek ere parte hartuko du; c) Nazionalitateak, problema berriak eta sexualitatea; d) Zinegileen arteko topaketa eta elkarrizketa.

Beste aldetik, topaketetako egunetan zehar hainbat zinema emango dira: bereziki katalanak eta euskaldunak; baina Okzitaniako zinemak ere bere lekua izango du. Euskal zinemari egun berezi bat eskainiko zaio; eta bertan zenbait filme emateko aukera izango da, motzak nahiz luzeren bat.

Astealdi honetara Ezker abertzaleetatik politikari bat eta euskal zinean diharduen zinegile bat deitu dituzte antolatzaileek. Baina horietaz gainera, nahi duenak partehartzeko aukera izango du.

Torinoko Unibertsitateak, antolatzaile

Astealdi honek apalki eta asmo handirik gabe hasi nahi du; baina aurtengoa ondo aterako bada, hurrengoetan indar eta baliabide handiagoz anto-

latu ahal izango dutela, diote antolatzaileek.

Dena dela, interesgarria da, Agnelli eta FIAT-en erreinuko, Piemonteko hiriburuko Unibertsitateak honelako astealdi bat antolatzea, Herri ezeztatu horietako problematika eta zinemaren arazoak ezagutarazteko eta zabaltzeko. Eta honelatsuko beste astealdi eta topaketen artean, bere lekua eduki ahal izango du, agian, etorkizunean.

Zehazki esanez, Torinoko Unibertsitateko Zinemaren histori Institutuok antolatzen du aurtengo astealdi hau; baina bertan parte hartzen dute Torinoko Udalak eta bertako Sindikato batek ere. Finantz alderdia Udalaren esku da, hain zuzen ere.

Astealdiaren zuzendaritza Institutoko irakasle batek darama: Marco Gazzano-k. Honengana inork jo nahi bala, hauxe du zezenbidea: Unibersita di Torino. Istituto Storia del Cinema. Tel. 873421.

Paulo AGIRREBALTZATEGI